



1. GAUR EGUNERA ARTEKO BILAKAERA

Euskararen erabilerak Euskal Telebistan bide luzea egin dui ikuspegi askotatik ikusita. Ia hamabost urte dira lehenengoz emititzen hasi zenetik, eta orduetik hona hainbat gauza aldatu dira, bai telebistak berak eraginda bai inguruak behartuta.

Euskal Telebista lehenengoz hasi zenean, euskara aldetik ezezik gainerako arloetan ere den-dena zen berria. Profesionalak horretarako prestatu beharra zegoen, ordura arte telebistarako behar zen teknologia ikasi behar izan zen, aktoreak ia-ia sortu, bikoizketa, lanbide moduan, ordukoa da, telebistaren itzalera sortua.

Halako gauza asko gaur egun gaintututa datide, ohitura sortu da, eta bai Unibertsitatean bai Lanbide Eskoletan Telebistak dituen beharretarako profesionalak prestatzen dira.

Bestalde, bidea ibiliz lkasten denez, ibilian ibilian Telebistak berak ikusi ditu bere beharrak eta erantzuna edo irtenbidea eman die aldian aldian.

Euskarari dagokionez, aurkezle, kazetari, bikoizle, aktore, itzultzaileek, edozein lanbidetan zihardutela, ordura arte euskara erabili gabe zegoen arloetan jardun behar izan zuten.





Kazetaritzan eta antzerkian bazegoen tradizio apur bat, honi egia da, baina Telebistak beste baldintza batzuk ditu, eta medioak berak eskatutako baldintza horietara makurtu beharrak hainbat gauza beste modu batean egitea dakar.

Telebistan, gainera, filmeek programazio-ordu asko betetzen dute, eta euskaldunok zinezaleak izan arren, ez dugu ohiturarik eduki aktore famatuak eta beste era bateko jendea (beltzak, indioak, txinoak ...) gure hizkuntzan entzuten, gizartean halako eredurik ez daukagulako. Arazo bera dago hainbat egoera erakusteko: New Yorkeko kale zantarretako eskale eta bizimodu eskaseko jendea, poliziak, militarrek, goi-goi mailako ejekutibo-aberats-agintariak... gure inguruan ez da normala halako jendeak euskaraz hitz egitea. Orduan, benetako eredurik ezean, sortu egin behar da bakoitzari egokien doakion hizkera. Eta hala eta guzti ere, hori guztion hizkuntza normalizatuaren barruan egin behar, beraz, arazoa bikoitza da. Horregatik da hain zaila era honetako saioetan sinisgarritasuna lortzea.

Gaur egun hau oso aldatuta dago. Orain ez da arraroa edozein aktore euskaraz entzutea. Baina kontuan hartu behar da, gizartean ere gero eta normalagoa dela edozein lanbidetako jendeak euskaraz hitz egitea, gaztelaren parera heltzeko asko falta dugun arren. Telebista-ikusleen artean ohitura sortu da, eta normalizat hartzen da edozein pertsonaia mota euskaraz aritzea. Gainera, hamabost urte ez dira asko, baina dagoeneko hainbat jendek umetatik ikusi du telebista euskaraz, eta halakoentzat programak euskaraz ikustea gaztelarez bezain normala da.





ETB 1 Euskadiko etxe guztietan dago gaur egun, horrek esan nahi du Euskadin etxe guztiak euskararekin bat eginda daudela ETBren bitartez.

Hori oso garrantzitsua da, ETB 1-ek euskararen presentzia ziurtatzen duelako baita erdaldunen etxeetan ere. Areago kontuan hartzen bada askotan familia horiek euskararekin duten harreman bakarra dela.

Gaur egun ETB 1 Euskadiko etxeetatik % 98an dago sintonizatuta, eta % 70ean egunero pizten da.

Aipatu berri dut Euskal Telebista hasi zenean zegoen beste arazo handi bat: euskararen batasuna. Egia da ordurako Euskaltzaindiak lehenengo pausuak emanak zituela bide honetan. Aditz laguntzailearen paradigmak, deklinabidea eta ortografia onartuta zeuzkan batasunerako. Baina euskara batua idatziari begira egin da batez ere, eta gurea ahozko medioa da. Ahozkotasunak beste bide batzuk zabalago uzten ditu, eta idatziak ez dituen beste eragile batzuk ditu. ahoskera, entonazioa, esakerak une egokietan...

Gai honetan, uste dut lotsatu gabe esan dezakegula gutxi gorabeherako eredu bat egin dugula. Ekina okerra da, eta ekinaren ekinez edozeinentzat erreferentziatzat balio duen eredu bat dago.





Ibilbide honetan gauza asko eta asko berriren berri sortu behar izan dira. Horietariko asko dagoeneko gizartean guztiz sartuta daude, beste batzuk, ostera, bide erdian geratu dira, edo zabalkunde nahikorik izan ez dutelako, edo jendeak bereganatu ez dituelako besterik gabe. Adibiderik mamitsuena kirol arlokoa dugu, dela futbola dela pilota dela beste edozein, ikusleek ondo ulertzen dituzte erretrasmisioetan erabiltzen diren esapideak: "jokoz kanpo" eta gainerakoak.

Baina sortze horretan hizkuntzak dituen barne-legeak behin baino gehiagotan hautsi dira, asko zabaldu diren esapideetan sarritan: noski baietz, goizaren zehar... eta antzekoetan. Beste batzuetan ondoan ditugun hizkuntzetatik datozkigun esapideetara gehiegi makurtu gara, eta euskarak dituen esapide adierazgarriak erabili beharrean kampoko hizkuntzetakoak hitzez hitz itzuli dira.

Azken urteotan garrantzi berezia eman zala hizkuntzari, eta gainerako profesionalen artean hizkuntzalariak tartekatu dira azken bi arloak bideratzeko batez ere: euskarak berezkoak ez dituen egiturak zuzendu alde batetik, eta euskal sena erakusten duten esakera, hiztegi eta egiturak berriro bideratu gaur eguneko erabileretara.

Ezin ahaz daiteke hamabost urteotan programazioa bera asko aldatu dela. Bitarte honetan Espainian telebista-katea gehiago sortu da, eta horrek beste esparru batean sartu gaitu. Gaur egun konpetentzia handia dago merkatuan, eta, ikusiko den telebista nahi badugu, jendearen gustuko programak egitea baino ez daukagu.





Duela hamabost urte ez zegoen produktorarik ez bestelako infraestruturarik era bateko saioak egiteko. Horregatik bikoizketarako bitartekoak bideratu, filmeak eta telesailak erosi, eta, kirolarekin batera, horrek osatzen zuen programazioa batez ere. Gaur egoera bestelakoa da. Bikoiztutako material oso gutxi ematen da, eta Euskal Herrian bertan sortutako era guztietako saioak dira nagusi: leihaketak, telesailak, magazinak, eta abar.

Hizkuntzaren erabileran horrek eragin argia dauka. Aktoreak, aurkezleak edo partehartzaileak euskaldunak izateak berak naturaltasun handia ematen dio saioari.





2. EGUNGO EGOERA

Aurretik esandakoarekin gutxi gorabehera azalduta geratu da zein den gaurko egoera. Eta izan ere, egungo egoeran eragin handia dauka azkenengo aipatu dugun puntuak. Hau da, gaur egun programazioaren zati nagusia bertan egindako saioek hartzen dute, eta horrek zeresan handia du, hainbat arlotan mesedegarri den moduan arazo berriak ere ekartzen dituelako.

Arloz arlo aipatuko ditugu.

Pausu batzuk egin dira, eta dagoeneko ohitura dago albistegiak, kirolak eta marrazki bizidunak euskaraz ikusteko. Lehenengotako hasiberriak orain profesionalak dira bete-betean, eta hori oso garrantzitsua da atzetik datozenentzat, eredu bat badaukatelako. Denetik dago hor ere, eta lana ez dago amaituta, baina oinarria nahiko sendo dagoela esango nuke.

Entzuleak ere ohitu dira neurri handi batean, eta hori faktore garrantzitsua da.

Bikoizketan asko aurreratu da. Jakina, ofizio hau ez da egun batetik bestera ikasten, eta urteotako ekinaren emaitza nabaritzen da. Alde batetik bikoizleak esatari moduan asko hobetu dira, pertsonalen izakera erakusteko dagokien interpretazioa gero eta sinesgarriago egiten dute. Eta beste aldetik, jatorrizko gidoia itzultzean gero eta gehiago begiratzen zaio euskara bizia, naturala, sinisgarria erabiltzeari. Beraz, itzulpenak egiteko orduan ere bilakaera ikusten da. Denborarekin lkasten joan gara ez dela nahikoa jatorrizkoak





esaten duena euskaraz esatea eta kito, garrantzitsuagoa da esaten den hori euskaraz esango litzatekeenaren ahalik eta hurbilekoena izatea. Hizkuntza zuzen eta ondo erabiltzea ez da nahikoa, hizkuntza horrek bizitasun eta berezkotasuna behar du. Horretarako egokitu egin behar da pertsonaiaren izakerari hark erabiliko duen hizkuntza, baina beti ere euskaldunok erabiltzen dugunaren ahalik eta antzerakoen.

Ildo honetan asko aurreratu da, bikoizketan ezezik albistegietan eta telesailetan ere. Eta badirudi bide egokia dela, emaitzak ikusita behintzat. Telebistan ezin da liburuko hizkera erabili. Gurean beti dago testu idatzia aurrean, baina ezin da ahaztu esateko dela, eta behin entzunda harrapatu behar dela mezua.

Espresioa zuzena eta aldi berean egoera bakoitzerako egokia izan dadin, hainbat bitarteko dauzka hizkuntzak. Halakoak landu eta bideratzea da hizkuntzalarien lana Euskal Telebistan. Lan horren emaitza dira, eguneroko zuzenketak ezezik argitalpenak ere. Orain arte liburu bat eta hiru liburuxka argitaratu ditugu. Manu Arrasateren Euskaraz-ko Albistegietako Esku liburu, eta Zabalkunde Orria 1, 2, 3. Bide hori egokitzen daukagu, eta jarraitzeko asmotan gara, gero eta gehiago sartuz testuen egitura eta testu-motetan. Hau da, gramatika arazoak bai, baina gauzak egoki esan eta adierazteko bideei eman behar zaie lehentasuna.

Aipa ditzagun, bestalde, orain arteko lorpenak audientzia aldetik.





Urtez urte jende gehiago erakartzen du Euskal Telebistak euskarazko programaziora. Azken hiru urteotan 90.000 ikusle gehiago bereganatu ditu, eta gaur egun 295.000 pertsonak (EGM-ren 96ko datuak) ikusten du egunero ordu laurden bat gutxienez telebista euskaraz.

Jende gehiago ez ezik, ETB 1 era guztietako jendea erakartzen du gaur egun. Hau da, adin, bizileku, gizarte maila, ikasketa maila... guztietako ikusleak biltzen ditu Euskal Telebistak. ETB 1 ez da jadanik gaztetxo edo oso zaharren telebista, edo herri txikitako euskaldunena. Gaur egun, maila guztietara iristen da, eta gizarte talde desberdin gehiagok dute gustokoa euskarazko telebistaren eskaintza.

ETB lek beti eskaini du denetik, baina eskaintzea ez da nahikoa, ikusleek programa mota guztiak ikustea lortu behar da, eta gaur egun lortzen ari dela esan behar da. Euskal Telebista aukera bakarra da euskaldunek euskaraz ikus ditzaten informazioa, lehiaketak, kirola, dokumentalak, zinea, magazinak..., eta orain ikusleek ikusi egiten dituzte saio mota desberdin guztiok. Hona adibide batzuk.

Sailik arrakastatsuen kirola da zalantzarik gabe. Futbolak 200.000 ikusletik gora biltzen ditu (%35 Share), eta pilota partiduek batz bestea 50.000 (%10.1 Sahare). Horrez gainera, saskibalola, txirrindularitza eta gainerakoak kontuan hartzekoak dira. Kiroletatik aparte, gainerako programetan goranzko bilakaera nabarmena da.





Albistegiek lortu dute ikusle multzo sendoa. Gaur Egun informatiboak gero eta jarraitzaile gehiago ditu. 1995ean 18.000 lagun biltzen zituen (%5,1 Share), orain ostera, 30.000 (%7,4 Share) lagunek ikusten dute egunero.

Zinea ere ari da lortzen ikusleak erakartzea. Zinea arlo garrantzitsua da ETBrentzat, eta honetan ere eboluzio positiboa nabarmendu behar da. Gaur egun 20.000 pertsonak (%4,1 Share) ikusten dituzte euskaraz ematen diren filmeak. Eta "Zine Oro" saioak audientzia handiagoa dauka.

Programa entretenigarriak asko ikusten dira, esaterako Txiskola, Jaun ta Jabe, Euskaraokea, Jaiak. Sail honetan igoera oso handia izan da, eta audientzia datuak eskuan hartuta, ikusiko dugu kopuruak ia bikoiztu egin direla. Hona adibide erakusgarri bi. "Bi eta bat" telesailak 36.000 ikusle (%4,7 Share) izan zituen batz bestea, eta "Jaun eta Jabe"k 72.000 ditu (%8,1 Share). Beste adibidea "Txiskola" lehiaketa da, 40.000 jarraitzaile ditu (%6 Share), "Funtzioa" arrakastatsuak, ordea, 30.000 izan zituen (%4,3 Share). Kasu ezagunena beharbada "Goenkale" dugu. 100.000 pertsonatik gora biltzen ditu egunero egunero (%13 Share), ikusle leialak, jarraikoak. Leialtasuna handiagoa da euskaldunen artean, jakina.

Badago beste puntu bat ere aipatzeko. Telebisten arrakasta neurtzen denean, sarritan ahaztu egiten da ETB 1en publiko potentziala beste katea guztien herena besterik ez dela. Eta ikusle potentzial horiei begiratuta, ETB 1 gaur egun telebista-eskaintza arrakastatsua da. Euskaldunek gustokoa dute euskarazko programazioa, gero eta gehiago, audientzia datuetan ikusi dugunez.



Hala ere, euskarazko saioen ikusleak ez dira denak euskaldunak. "Jaun eta Jabe"ren audientziaren %66,6 euskalduna da, gainerakoek berriz, euskara zerbait ulertzen edo ezagutzen dute baina ez dira guztiz euskaldunak. Ikusle hauek telebistaren bidez gordetzen dute euskararekin lotura, eta hala, euren eguneroko bizitzan euskarak presentzia ziurtatuta dauka. Beraz, telebistaren zeregina euskararen hedapen eta ezagutzan oso garrantzitsua da, ikusten denez.





3. AHULEZIAK ETA INDAR-GUNEA

Ahuleziak esaten denean, orain arte konpondu gabe ditugun arazoak edo puntuak eskatzen zaizkigula ulertu dut. Horregatik gaur egun bai lehendik argitu gabe dauden arazoak bai agertu berriak direnak gogoratuko ditugu.

Ahoskera arazoak. Ahoskera baturik ez dagoen neurrian edozein ahoskera onargarri da euskararena denean behintzat. Eta orain arte hala izan da, baina gero eta sarriago suertatzen zaizkigu erdal ahoskera daukaten hiztunak. Jende gaztea edo esataritzan zertan edo hartan hasi berri direnen artean, gero eta arazo zabalagoa da: kazetariak, aktoreak, esatariak... sarritan ez dakite ahozko euskararik, irakurtzen ari balira moduan hitz egiten dute, eta gainera erdal doinuaz.

Esaten dena zenbat eta neutroagoa izan orduan eta gutxiago nabaritzen da doinu arazo hori, baina enfasi edo inflexio bereziren bat egin nahi izanez gero berehala geratzen da agerian. Irakaskuntza eta mundu modernoa gehiegi oinarritzen da testu idatzian, eta horren ondorioa da azaldu berri dugun arazoa, neurri handi batean.

Hizkuntza urria. Arazo hau ere gero eta zabalago ageri da. Gainera nahiko zabala da, gure inguruko hizkuntza handiek ere kezka bera azaldu baitute. Kontua da hiru berba eta beste hiru egitura erabilia esaten dela dena, edozein kontestu edo egoera dela.





Horren ondotik dator berbak zein kontestutan diren egoki bereizteko sentsibilitaterik eza. Esaterako, informatibo baterako lehengo egunean kazetari batek idatzitako esaldi hau: "Langosta-izurriteak jendea izorratzeaz gain nekazaritzan kalte handiak eragin ditu". "Izorratu" hitza horrela erabiliz gero, konnotazio gogorak galdu egingo ditu, eta ondorioz, kontestu honetarako gero ere gogorregia izango da, baina gogorra izan behar duen kontesturako bigunegi geratuko da. Bakoitzari berea, hori da legea.

Hizkuntza mailak bereizi beharra. Beharra badago, baina zertan oinamtu bereizketa hori, hori da galdera. Albistegietan, kiroleetan, komedietan... nola bereizi esatari eta pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak hizkuntzaren bitartez? Nola jokatu filmeetan ageri diren gizarte-maila ezberdinetako pertsonaiekin? Eta alderantziz, nola eta noraino mugatu aktore euskaldunzahar bati bere hizkera zuzentasunaren aitzakian, horrela bizitasuna galduko duela jakinda? Hiztegia eta egiturak egokitzea nahiko da, ala ahoskerako ezaugarriak (doinua, laburdurak, fonetismoak... ere erabilgarri dira zeregin horretarako?

Galderak, arazo honetan galderak ditugu erantzunak baino gehiago, eta gainera arau orokorrik ematea oso zail ikusten dugu, esatari batentzat baliogarriztat ematen dena beste batentzat ez du balio eta.

Euskalkiak eta euskara batua. Euskalkiak gehiago integratu behar dira. Iparraldea Euskal Herria ez dugu behar bestean kontuan hartzen. Orokorrean gipuzkera zabaltzen ari gara batuak agindutako irizpideak betetzeko aitzakian. Hala ere ezjakintasun handia dago arlo honetan, eta euskaldunon artean aurrititzi asko ere.





Biderik egokiena bakoitzari beretik daukana ateratzea da, baina hori ez da nahikoa. Adibidez, telesail bate-rako gidoia idazten duenak, pertsonaiek erakutsi behar duten koherentzia ezezik aktoreen hizkuntz-gaita-suna ere kontuan hartu beharko luke. Edo dokumental baten itzulpena egiten duenak hango eta hemen-go egiturak eta hitzak erabiltzen ahalegin apartekoa egin behar luke, beti ere gaiak ematen duen neurrian.

Leku edo lekuko jakin batengana joanez gero, areago alfabetatugabea bada, telebistako profesionalak haren hizkerara hurbiltzen ahalegindu behar du, eta ez alderantziz. Harena iluna bada profesional horrek berorrek argituko ditu haren esanak sinonimo edo azalpenen bidez. Baina lehentasuna lekukoak behar du beti.

Esataritza, mintzamena. Gaur egun teknika eta zientzien munduan murgilduta gaude, eta mintzamena lantzea ez dago modan, ez da behar bestean baloratzen. Nahiko gutxi irakurtzen da orokorrean, eta are gutxiago hitz egin, ereduzko moduak landuz esan nahi da. Telebistan ere irudia eta akzioa dira nagusi. Ondorioz, nor edo nork kamara aurrean berak dakien zerbaitez hitz egin behar duenean, arazoak ditu azalpenak eman, kontakizuna egin, hiztegi egokia erabili, eta entzulearen atentzioa lortu eta eusteko bali-abideak erabiltzeko. Han guztia ez da beti eta hiztun guztiengan berdin gertatzen, baina hutsune handiak daude.





Bestalde, euskaraz ezer egotekotan ahozko tradizioa egon da, baina ez dugu hori landu. Eskolak eta irakaskuntzak ez du hori errekerperatzen jakin, eta komunikabideetan ere sarritan gehiago makurtu gara medioaren beharretara gu bereizten gaituzten ezaugarriak jaso eta integratzera baino.

Hitz berriak sortu behar direnean hizkuntzak berak ditu hainbat bitarteko horretarako: atzizkiak, konposaketa, berba baten esanahia beste esanahi batera alboratzea...

Eta kontakizuna egiteko ere badaude bitarteko egokiak herri ipuinetan eta zaharren kontuetan ikusten denez: Bazen behin, joan-joan eta joan, urlia badator eta...

Garrantzi handia dute esaldien arteko loturek, bestela kontakizuna jauzika moduan doa eta nekez egingo da entzulearentzat erakargarri. Halakoak dira: ordea, ostera, hala eta guzti ere, baina orduan, bestalde, bitartean, ostean, ondoren, beraz, ondorioz, hau da...

Sarritan testu batean leku egokietan "ba, bada, gero, edo, bai, eta" edo antzekoren bat sartzea nahikoa da askoz geureago egiteko testu hori. Beti ere ondo esatekotan.

Gu aspaldian ari gara arlo hau lantzen, baina oraindik zeregin handia dago euskarak dituen baliabideak geureganatzen. Lehendik daukagun tradizioa gehiago aztertu behar dugu oraindik gaurko medio berrietara egokitzeko, baina bide emankorra eta guztiz egokizat daukagu zalantza barik.





Medioaren menpe. Telebista euskaraz egiten da eta horregatik hizkuntza oso garrantzitsua da. Baina medioak berak beste baldintza asko ditu, eta euskara horietariko bat baino ez da. Horregatik batzuetan beste irizpide batzuk lehenatasuna hartzen dute hizkuntzaren aurretik.

Hala ere **indar-guneak** ere ez dira gutxi. Gainera, ahulezien artean aipatutako batzuk indar-guneak ere badira. Hau da, hizkuntzaren egokitasuna lortzeko bidean asko aurreratu da, eta lorpen hori gerorako indarra da. Hala ere, oraindik bide luzeagoa egin beharra ikusten dugulako sartu dugu ahulezien artean. Azken finean bata bestearen osagarri da.

Hona guk azpimarratuko genituzkeen batzuk:

Mendioa bera. Telebista hedabide indartsua da gaurko bizimoduan. Etxe guztietan dago telebista bat gutxienez eta gutxi-asko denok ikusten dugu. Beraz, jende askorengana heltzeko bidea ematen du, beste inork baino gehiago, eta horregatik eragina ere oso zabala du.

Horrez gainera, telebistak irudia du lagun, eta hori ere mesedegarri da hizkuntzaren ulermenerako. Hau da, huts-hutsean ulertzen zailak diren hitz eta egiturak irudiaren bitartez erraztu egiten dira. Sarritan, gainera, ezin dira halako hitzak esan gabe utzi. Dokumentaletan kasurako, hainbat animalia eta landareren izenak ematen dira, eta halakoak esan egin behar dira guretzat euskaraz ezezagunak izan arren. Halakoetan irudia ezinbestekoa da zeri buruz ari garen ulertzeko.





Aniztasuna. Telebistan beste inon baino egoera, pertsona-mota eta aukera zabalagoa dago. Egoera bakoitzari, pertsona bakoitzaren izakerari zer irtenbide linguistiko ematen zaion hori da hurrengorako ereduak. Esaterako, poliziek irratian bidez hitz egiten dutenean komunikazioa eteteko itzulpen modu asko sortu ziren, baina batek egin du aurrera: "Txanda" "Txanda eta kito". Gaur egun esamolde hori ertzainek eurek ere erabiltzen dute, eta zertan esanik ez literaturan eta umeen artean euren jolasetan. Gizartean orain arte ez da halakoen beharrik egon eta horregatik ez dugu benetako eredurik eduki, beraz sortu egin behar izan dira.

Beste batzuetan badakigu halako hitza edo esamoldea ez dela ulertuko, baina zehatza izan nahian erabili beharra dago. Albistegietan gertatzen da hori sarri. Ia egunero suertatzen da epaitegietako berriren bat eman beharra, eta orduan aipatu behar izaten dira epaitegi-motak, delitu eta zigorrak, legeak dioena gauza bati edo besteari buruz, baten ikuspegia eta bestearen arrazoiak... Eta horrek guztiak terminología berezia eskatzen du, nahiz eta jakin entzuleek ez dutela dena ulertuko. Hala ere arazo hori beste hizkuntzetan ere berdin gertatzen da. Eta mezua arintzeko irtenbide moduan, beti dago aukera sinonimoak emateko eta hitz ulertezinak ahalik eta gutxien erabiltzeko.

Programazioa. Entzuleak dagoeneko hainbat saio-mota arazorik gabe ulertzen ditu. Adibidez kirolak, albistegiak, leihaketak, magazinak eta telesailak. Horrek esan nahi du hizkuntzaren erabilera normaldu egin dela, eta edozein gai, edozein kontestutan erabil daitekeela arazorik gabe.





Era berean ondoen zer ikusten den kontuan hartuta, horri lotzea izango da programazio-irizpide bat, baina baita geratzen diren hutsuneei heltzea ere. Esan nahi da, programazioak ezin duela hutsunerik izan, orokorra eta orekatua izan behar duela, eta denetarik behar duela. Beraz, oraindik hutsune diren arloetarako, besteetatik zer den erabilgarri azertu beharko da harako aplikatzeko.

Teknologia berriak. Telebista teknologia aldetik oso konplexua da. Baina era berean teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeretara zabalik dago, eta sare berrietan sartzeko aukera ematen digu.

Gaur egun telebistan emateko egin diren saioak bideo edo bestelako formatotan zabaltzeko balio dute, bai etxean bai eskolan erabiltzeko.

Horrez gainera, beste medio batzuekin bat egiteko modua dauka: Internet, multimedia sareen bitartez.

Gaur egun Teletestua hasita dago Euskal Telebistan. Eta laister Hegoamerikara joango gara "Galeusca TV" katearen bidez.

Horrek guztiak aukera zabala ematen digu euskara landu, erabilera bultzatu, nahiz dena delakorako. Nola erabili finkatzea da kontua, bitartekoak jarrita daude.



Gero eta normalagoa da telebista eta ordenadoreak lotuta egotea, beraz, horretaz baliatu behar dugu, telebistan egiten dena hobeto aprobetxatzeko ezezik, bereziki telebistarenak ez diren zereginak ere bideratzeko. Jendeak etxetik parte hartzeko moduko gauzak prestatu,. ikastaroak, leihaketak, jolasak...





4. ETORKIZUNERAKO URRATSAK

Aurreko puntuetan hainbat ideia agertu dira dagoeneko gerora begira egin beharko litzatekeenaz. Hala ere puntu batzuk zehazten ahaleginduko gara txosten hau erabilgarriago izan dadin errazteko.

I. Ermisioari begira edozein saiotan esango diren testuak errazten eta gozaten, hau da, gozoago bihurtzen jarraitu behar dugu. Helburua entzuleengana heltzea da, eta, era berean, hizkuntza ahalik eta egokien erabiltzea. Horretarako, ahozko medioa garen aldetik ahozko hizkuntzaren bitartekoak erabili behar ditugu, baina bakoitza bere lekuan. Saio mota, egoerak eta bertan parte hartzen dutenak kontuan hartuko dira hizkuntza ahalik eta egokien moldatzeko kasuan kasuko beharretara. Lehenago aipatu ditugu helburu hau lortzeko zer hartu behar den kontuan: hiztegi egokia, egitura jatorrak, joskera zaindua, esaldien arteko loturak, entonazio eta ahoskera ona...

Euskararen tradizioa ondo aztertu beharra dago gure hizkuntzaren ezaugarriak ikasi eta menperatzeko. Eta ondoren emaitza telebistan txertatzeko ahalegina egin behar da.

Ahoskera ere landu behar da aurrerantzean. Erdal doinu asko sartzen ari da, eta idatzitik datozkigun zenbait ahoskera (zaila>zaila, zaya). Halako arazoan aurrean ariketa bereziak prestatu, eta beti ere pantailan agertu aurretik konponbidea lortzen ahalegindu behar dugu.





2. Aurreko helburua betetzeko garrantzitsuena eguneroko lana da: albistegietako testuak zuzendu, telesailen eta dokumentalen gidoiak begiratu eta osatu, eta gero esatarien jarraipena egin. Izan ere, ez da nahikoa testua ondo egotea, ondo esan behar da.

Zuzenketa lan honen ondorio eta emaitza dira argitalpenak. Orain arte egindakoen bidetik jarraituz, aurrerantzean ere beste gai batzuk jorratu behar dira, eta telebistan nahiz beste komunikabideetan lan egiten duten profesionaleri material lagungarria eskura jarri.

Material hori eguneroko lanaren emaitza da, eta aldi berean gerora begira konponbide batzuk jartzeko bitarteko lagungarria ere. Beraz, ikerketa eta zabalkundea ezin dira baztertu.

3. Hizkuntzaren zabalkundeari guztiz lotuta dago nolako telebista eredua egingo den. Eredua horrek ezaugarri batzuk bete beharko lituzke. Lehenengo eta behin, telebista indartsu eta erakargarria behar dugu. Gaur egun euskaldun bakoitzak hiru ordu ematen ditu telebista ikusten egunero, eta Estatuko biztanleek hiru ordu ta erdi pertsonako. Gerora begira ere, telebistak kenduko digu denpora gehien aisialdian, eta aisialdian euskara ziurtatzea nahi badugu ezinbestekoa da ikusiko den telebista egitea.

Euskal Telebistak familia osoarentzako programak egin behar ditu, *irekiak eta denontzako modukoak*, jende guztiarengana heltzeko.





Programazio osoa eta orekatua lortzeko, *telebista generalista* izan behar du, hau da, era guztietako programak euskaraz emango dituenak: albistegiak, entretenigarriak, kirolak, zinea. Ikusleak euskarara ekarri behar dira saio mota guztien bitartez.

Euskal Telebistak saio arrakastatsuak egin behar ditu, eta *euskararen arrakasta* gizarte osoari erakutsi gero. Dagoeneko "Goenkale"k lortu du erdaldunak inbidiatan jartzea, bertsolaritzak bezala. Aurrerantzean bide horri eutsi behar zaio.

4. Telebistak, teknologia berrien bitartez, beste esparru batzuetan sartzeko aukera dauka. Zeregin hori bakarrik egin dezake, nahiz beste erakunde edo elkarte batzuekin batera. Hona ideia batzuk:

Telebistan emateko egiten diren umeentzako saioak bideo bidez zabaldu. Baina horrek katea zabalagoa izan dezake-. komikiak, ariketak, leihaketak, jokoak, material didaktiko osagarria, etab. Esate baterako oraintsu bikoiztu da "Kixote Mantxako"aren bizitza marrazki bizidunetan. Material egokia izan daiteke halako zerbait bideratzeko.

Helduentzako materialak beste tratamendu bat beharko luke, baina hori ere egin daiteke. Esate baterako, audientzia-datuak lortzeko inkestak egiten diren moduan, bestelako helburuetarako ere erabil daitezke medio berberak. Oraintsu filmeei buruzko inkesta bat egin da euskaltegietan. Horren antzeko zerbait egin daiteke beste esparru batzuetako jendearekin.





Unibertsitatearekin harreman estuagoa beharko genuke. Kazetaritzako ikasleek praktikak egiten dituzte telebistan, baina akaso elkarlanean aritu beharko genuke gehiago, prestakuntza gure beharretara hobeto bideratzeko. Bestalde, sarritan gu gehiago jabetzen gara gure hutsune eta beharrek, eta horrela unibertsitateko prestakuntzak hobeto beteko lituzke halako hutsuneak.

Nahiz Teletestuaren bidez nahiz Telebista Internetekin lotuta, hizkuntzari buruzko saioak egin daitezke: lkastaroak, leihaketak, aholkuak, galdera-erantzunak bakoitzaren herrian nola esaten diren gauzak eskatuz... Helburu didaktikoa eta norberaren hizkeraren autoestima lortuko genituzke bide horretatik.

5. Urte gutxitan berriro aldatuko da telebisten esparrua. Kable bidezko telebistak izango ditugu laster gure artean, eta eskaintza asko zabalduko da berriz ere. Horrek esan nahi du Euskal Telebistak kompetentzia zabalagoa eta handiagoa izango duela, eta proportzioan euskararen presentzia txikiagoa izango dela. Eskaintza zabal horretan era guztietako kanalak izango ditugu eskura: orokorrak, gaikakoak (kirola, albisteak, zinea bakarrik ematen dutenak, hemengoak, kanpokoak...

Esparru horretan euskarak aurrera egin dezan nahi badugu, Euskal Telebistak egokitu egin beharko du bere eskaintza, eta akaso baita katea tematikoetara jo ere. Hainbeste katearen artean euskarak izan behar du Euskal Telebistaren bereizgarria, baina aldi berean ikusleekiko lotura ere.





5. BI ONDORIO NAGUSI

Gerora begira bi puntu nagusi nabarmenduko ditugu esandako guztien artean.

Alde batetik, Euskal Telebistaren ekarria ezinbestekoa da euskararen munduan etorkizunerako. Ezin ahaz daiteke gero eta jende gehiagok erabiltzen duela euskarazko telebista informatzeko eta entretenitzeko. Bestalde, Euskadin bizi diren erdaldun askok, eta euskara ikasten ari diren beste askok ia telebistan bakarrik ikusten dute euskarak gizartean duen lekua. Ia ez daukate beste egoerarik euskararekin lotura izateko. Telebistak, beraz, zeregin hori betetzeari eutsi behar dio.

Horrekin batera, euskaldunentzat eredu izaten jarraitu behar du, geure hizkuntzari prestigioa emateko, eta gaurko bizimoduan ondo egokitzeko.

Beste aldetik, etorkizunean, baina epe laburrean, komunikabideen arloa asko aldatuko da: telebista asko izango ditugu eskura, aukera berriak zabalduko zaizkigu multimedia sareen bidez. Bide hauek euskara zabaltzeko bitarteko izango dira, baina era berean, euskarak bere lekua gogorrago defenditu beharko du. Euskal Telebistak zeregin garrantzitsua dauka geure nortasuna adierazten duen hizkuntzari dagokion lekua egiten. Ezinbestekoa da euskara bide horrietan sartzea, eta horretan dauka Euskal Telebistak erronkarik handienetakoa.

